

Gure enpresa eta produktua berriak direnez, gure motibazio handiena bezero eta harreman berriak lortzea da, eta ahal den moduan salmenta kopurua ahalik eta handiena lortzea.

Bezeroekiko harreman pertsonala edukitzea gustatuko litzaiguke, bezeroak ezagutzea garrantzitsua iruditzen baitzaigu gure produktua eta enpresa hobetu eta moldatzeko. Hala ere, webgune bat ere jarriko dugu, bertan bezeroek bere beharrak adierazi eta zerbitzu automatizatuak bere koltxoi inteligente egokiena zein den adieraziko die. Bi aukera izango dituzte orduan: webgunetik eskatu edo dendara etorri eta guk gure iritzia adierazi eta koltxoi batzuk probatu ondoren bertan erostea.

Bezeroa gure negozio-ereduan integratzeko, harpidetzak egiteko aukera emango diego gure bezeroei eta behin harpidetu eta bazkide direnean, horrela jarraitzeko eskaintza bereziak egingo ditugu.